



**Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030  
Planaren jarraipena**

**Seguimiento anual del Plan de Prevención y Gestión de  
Residuos Urbanos Álava 2030**



**araba  álava**  
foru aldundia diputación foral



## Edukien aurkibidea

|                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| 1. Hitzaurrea .....                 | 1  |
| 2. Helburu estrategikoak .....      | 2  |
| 2.1. Gobernamendu ona.....          | 4  |
| 2.2. Hondakinen hierarkia.....      | 7  |
| 2.3. Jasangarritasuna.....          | 21 |
| 3. Ekintzen garapena .....          | 26 |
| 3.1. Ekintzen aurrerapena .....     | 29 |
| 3.2. Lan-arloak .....               | 32 |
| 4. Ingurumen-ondorioak .....        | 44 |
| 5. PRU2030-aren betetze-maila ..... | 48 |



## 1. Hitzaurrea

Dokumentu hau **Arabako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko plana, 2017-2030 (PRU2030)**-aren urteko jarraipen-txostena da. Azaroaren 21eko 20/2018 Foru Arauak onartutako plana da, eta PRU2030-ak barne hartzen dituen Urteko jarraipena eta Lau urteko ebaluazioa egiteko prozedurei erantzuten die.

PRU2030-ak 27. ekimenean ezartzen duenaren arabera, Planaren jarraipenak urteko aldizkakotasuna izango du, Hiri-hondakin inbentarioaren datuak argitaratu ondoren. Arabako Foru Aldundiak (AFA) lideratu eta sustatzen du ekimen hori, erantzunkidetasun gisa parte hartzen duten Arabako gainerako erakundeekin batera. Erakunde horiek, batez ere, Arabako Lurralde Historikoko (ALH) kuadrillak eta udaletxeak dira.

Jarraipena hiru mailatan burutuko da:

- Helburu estrategikoak betetzea
- Ekintzen garapen-maila
- Planaren ingurumen-ondorioen ebaluazioa

PRU2030-ak hamar **Helburu estrategiko** (HE) zehazten ditu, hiru jarduketa-esparrutan antolatuta: Gobernamentu ona, Hondakin hierarkia eta Jasangarritasuna. Helburu estrategiko horiek Planaren bilakaera baloratzeko adierazle kuantitatiboak dituzte esleituta, eta horietako gehienak Arabako Hiri-hondakin inbentariotik ateratzen dira.

Bestalde, PRU2030-ean 80 banakako ekintza zehazten dira, hainbat jarduketa-ildo dituzten bereizitako hiru ekintza-programatan jasota. Jarduketa-ildo horiei esker, planaren ekintzak egitura daitezke, aurrez zehaztutako Helburu estrategikoak bete ahal izateko. **Ekintzen garapenaren** analisiari esker, Planaren aurrerapen-maila neur daiteke, modu kuantitatiboan zein kualitatiboan.

Azkenik, **Ingurumen-ondorioek** ingurumenean egon daitezkeen ondorio negatibo handiak prebenitu, murriztu eta, ahal den heinean, konpentsatzeko planaren aplikazioan aurreikusitako neurrien adierazleak taldekatzen dira, klima-aldaketan duten eragina murrizteko eta aldaketa horri egokitzeko neurriak barne.

PRU2030-aren 3. eranskinean jarraipen-adierazle guztiak aurki daitezke: Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen laburpena (2018/12/14aren 144. ALHAOren 214/258. orrialdeak).



## 2. Helburu estrategikoak

Arabako hiri-hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planak (2030) edo PRU2030-ak zenbait Helburu Estrategiko (HE) ezartzen ditu interes handiko hiru arlotan: Gobernamendu ona, Hondakinen hierarkia eta Jasangarritasuna. Honako taula honetan, Helburu estrategikoak laburtzen dira, aipatutako tipologia bakoitzaren barruan.

|                             |   |
|-----------------------------|---|
| <b>Gobernamendu ona</b>     | <b>01.HE.</b> Gobernu ona. Zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea |
| <b>Hondakinen hierarkia</b> | <b>02.HE.</b> Prebentzioa (kuantitatiboa)                         |
|                             | <b>03.HE.</b> Prebentzioa (kualitatiboa)                          |
|                             | <b>03.HE.</b> Prebentzioa (kualitatiboa)                          |
|                             | <b>04.HE.</b> Berrerabiltzeko prestakuntza                        |
|                             | <b>05.HE.</b> Birziklatzea  |
|                             | <b>06.HE.</b> Beste balorizazio mota bat                          |
|                             | <b>07.HE.</b> Ezabapen segurua                                    |
| <b>Jasangarritasuna</b>     | <b>08.HE.</b> Jasangarritasun ekonomikoa                          |
|                             | <b>09.HE.</b> Ingurumen-jasangarritasuna                          |
|                             | <b>10.HE.</b> Gizarte-jasangarritasuna                            |

1. taula: PRU2030-aren helburu estrategikoak

Planaren ekintzen menpeko Helburuekin lotutako adierazleen balorazioa 2019. urtean hasten da, Plana 2018aren azaroan onartu zelako. Bere aldetik, Hondakinen hierarkiarekin lotutako adierazle kuantitatiboen abiapuntua 2010. urtea da, Plana idatzi zen unean indarrean zegoen Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko legearen erreferentzia-urtea delako.

Hondakinen hierarkiarekin lotutako adierazleak kalkulatzeko informazioa Arabako Hiri-hondakinen inbentarioaren bidez lortu dira. Adierazle horietako batzuk kalkulatzeko, eskuragarri dauden analisi-denboraldi bakoitzeko hondakinen zehazketak erabili dira. Une honetan, 2011, 2017 eta 2023ko zehazketak dauzkagu. Adierazle bakoitzaren datu-seriea aztertuz gero, erreferentzia-zehazketaren aldaketari bakarri dagozkion tartekak aurki ditzakegu. Zehazketak bi urtean behin egiten dira, **10. ekintzan** zehazten den modura. **Biurteko zehazketek** zehazketa-aldaketen eragina murriztuko du, datu-serie homogeenagoak edukitzea ahalbidetuz.

2023an egindako PRU2030-aren lehen berrikuspenaren ondoren, helburu estrategiko batzuk aldatu egin ziren, indarrean zegoen legedi berriari egokitzeko, hau da, Ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeari eta Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuari.

PRU2030-eko helburuetan egindako aldaketei dagokienez, lehenik eta behin, bi murrizketa-helburu gehitu dira: 2025erako eta 2010arekin alderatuta sortutako hondakinen % 13a (pisan)



murriztea eta 2030erako % 15a gutxitzea. Hala ere, helburu horiek ez dira PRU2030-ak 2030erako eta 2016arekin alderatuta barne hartzen duen sortutako hondakinak % 15a murriztearen helburua bezain anbiziotsuak. 2010era estrapolatuta, PRU2030-aren helburuak sortutako hondakinen % 23a hartzen du barne, 7/2022 Legeak eskatzen duen % 15arekin konparatuta.

Bigarrenik, PRU2030-an 2030erako ezarritako sortutako hondakinen % 5a (pisuan) berrerabiltzeko prestakuntzarako bideratzeko helburua 2025era aurreratu da. Hortaz, 2030erako % 10a (pisuan) horretarako bideratzeko helburu berria sortu da. Hasierako helburuaren aurrerapen horrek eta helburu berriaren sorkuntzak ez dute inola ere Planean berrerabilera sustatzeko zehaztutako neurrien gaineko ekintzetan aldaketarik eragingo; izan ere, eragindako ekintzak honako hauek izango dira: 64, 65, 66, 67 eta 68.

Azkenik, hondakinen bilketa- eta kudeaketa-zerbitzuengatikoko kostuen % 100a estaltzeko helburua ere aurreratuko da 2030etik 2025era. Berrerabiltzeko prestakuntzarako helburuarekin gertatzen den moduan, ez ditu PRU2030-ak barne hartzen dituen 5. eta 6. ekintzak aldatuko. Ekintza horiek ekonomia- eta finantza-eredu bateratu eta homogeneoa ezartzea dute xede, baita lurraldean fiskalitate-eredu bateratu berria sortzea ere.



## 2.1. Gobernamendu ona

### 01.HE. Gobernu ona. Zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea

| Helburu estrategikoa  | Deskribapena  | Adierazleak  | Adierazleen helburu balioak  |
|---|---|--|--|
| <b>GOBERNAMENDU ONA</b>   |   |  |  |
| <b>01.HE. Gobernu ona. Zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea</b> | ALHn hiri hondakinak kudeatzeko ereduaren koordinazioa eta integrazioa hobetzea, horrek zerbitzuaren efizientziaren eta kalitatearen hobekuntzan duen eraginarekin. | Koordinazio eta integrazio adierazlea. Eren hiri hondakinak kudeatzeko eredia ALHn eraginkortasunez koordinatuta eta integratuta duten biztanle zerbitzatuen ehunekoa, ALHko biztanle guztietatik. | Altako kudeaketaren (tratamendua) % 85eko koordinazio eta integrazioa 2020an.<br>Altako kudeaketaren % 100eko koordinazio eta integrazioa 2030an.  |
|   |   | Efizientziaren hobekuntzaren adierazlea. Hiri hondakinak kudeatzeko sistemaren gastua murriztea ALHn (€ per capita/urteko eta €/t/urteko)  | Urteko per capita gastuaren murrizketa iraunkorra, 2020az geroztik. (Planaren inbertsioen eta gastuen ondorioz, 2020 arte guztizko gastua igo eta ondoren murriztuko delakoan)             |
|   |   | Zerbitzuaren kalitateko hobekuntzaren adierazlea. Zerbitzatutako biztanleetatik jasotako hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren kalitateari dagokionez gogobetetze maila altua dutenen ehunekoa   | >% 80ko gogobetetze ehunekoa (hiri hondakinaren ekobarometroa erabiliz kalkulatuta -ikus 14. ekintza-). Adierazle horren jarraipen maiztasuna ekobarometroa egitekoarekin bat etorriko da. |

2. taula: Gobernu onari eta zerbitzuaren efizientzia eta kalitateari buruzko helburu estrategikoa

#### Deskribapena

ALHn hiri-hondakinak kudeatzeko ereduaren koordinazioa eta integrazioa hobetzea, horrek zerbitzuaren efizientziaren eta kalitatearen hobekuntzan duen eraginarekin.

#### Koordinazio- eta integrazio-adierazlea

Hiri-hondakinak kudeatzeko eredia ALHn eraginkortasunez koordinatuta eta integratuta duten biztanle zerbitzatuen ehunekoa, ALHko biztanle guztietatik.

**1. ekintza** Gobernamendu-eredu berria eta integratua: hori lortzeko lan egiten jarraitzen ari garen arren, oraindik ez da eredia gauzatu. Beraz, eredu honek ez du ekintza honen adierazleari erantzuna emango dion biztanleria integratuko baliorik barne hartzen.




**Efizientziaren hobekuntzaren adierazlea**

Hiri-hondakinak kudeatzeko sistemaren gastuaren murrizketa ALHn (€ per capita/urte eta €/t/urte).

|                      | Urtea:<br>2018 | Urtea:<br>2019 | Urtea:<br>2020 | Urtea:<br>2021 | Urtea:<br>2022 | Urtea:<br>2023 | Urtea:<br>2024 |
|----------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Kostua (€/t)         | -              | 220,36         | 215,17         | 231,4          | 206,3          | 264,6          | 267,95         |
| Inbertsioa (€/bizt.) | -              | 84,16          | 86,27          | 87,2           | 76,75          | 96,69          | 99,91          |

**3. taula:** Hondakinaren kudeaketa-sistemaren gastua



**1. grafikoa:** Hondakinaren kudeaketa-sistemaren gastua

Adierazle honek Planaren lehen urteetatik 2020ra arte egindako inbertsio eta gastuen ondoriozko gastuaren areagotzea adierazten zuen. Dena den, Planaren egikaritzea atzeratu denez, areagotze hori ondorengo urteetan nabarmendu zen, 1. grafikoan ikus daitekeen moduan.




## Zerbitzuaren kalitatearen hobekuntza-adierazlea

Zerbitzatutako biztanleetatik jasotako hiri-hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren kalitateari dagokionez gogobetetze-maila altua dutenen ehunekoa.

Adierazle horren jarraipen-maiztasuna Ekobarometroaren egikaritzearekin bat etorriko da. Lehen datua 2023ko Ekobarometroari dagokio.

|                                       | Urtea: 2019 | Urtea: 2020 | Urtea: 2021 | Urtea: 2022 | Urtea: 2023 | Urtea: 2024 |
|---------------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| Poztasun-maila altua duen biztanleria | D.G.        | D.G.        | D.G.        | D.G.        | % 64,40     | % 64,40     |

4. taula: Zerbitzuaren kalitatea



2. grafikoa: Zerbitzuarekiko poza. Iturria: Hondakinen Ekobarometroa, 2023



## 2.2. Hondakinen hierarkia

### 02.HE. Prebentzioa (kuantitatiboa)

| Helburu estrategikoa                      | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak    |
|---|---|---|--------------------------------|
| <b>HONDAKINEN HIERARKIA</b>               |   |   |                                |
| <b>02.HE. Prebentzioa (kuantitatiboa)</b> | 2030ean sortutako hiri hondakinen pisua % 15etik gora murriztea, 2016an sortutakoen pisuaren aldean | ALHn sortutako hiri hondakinen guztizko pisua   | Helburuak berak adierazitakoa. |
|   |   | Desakoplamendu adierazlea (ALHn sortutako hiri hondakinak, kilogramotan, Arabako BPGko 1000 euroko) | Beherazko joera iraunkorra     |


5. taula: Prebentziozko helburu estrategikoa (kuantitatiboa)

#### Deskribapena

2030ean sortutako hiri-hondakinen pisua % 15etik gora murriztea, 2010ean sortutakoen pisuaren aldean. Helburu honi, 7/2022 Legearen arabera, 2010arekin alderatuta 2025erako % 13ko eta 2030erako % 15eko murrizketa-helburuak gehitu zaizkio. Hala ere, ez dira PRU2030-eko helburua bezain anbiziotsuak.

#### Adierazlea: ALHn sortutako hiri-hondakinen guztizko pisua

2024. urteko ekitaldian, ALHn sortutako hiri-hondakinen guztizko pisua 134.769 t-koa izan zen; beraz, % 1a igo zen 2016koarekin konparatuta (135.733 t).




3. grafikoa: Sortutako etxe-hondakinen bilakaera, Araba



**Desakoplamendu-adierazlea (sortutako hondakinak, kg-tan, Arabako BPGko 1000 €-ko)**

Desakoplamenduaren helburua Arabako BPGko 1000 €-ko ALHn sortutako hiri-hondakinak kg-ak etengabe beheratzea da. 4. grafikoan ikusten denez, helburu hori 2010. urtetik bete da, BPGren bilakaera, ez duelako zerikusirik hondakinak sorkuntzarekin.



**4. grafikoa:** Hondakinak sorkuntzaren eta BPGren arteko desakoplamendua, Araba



**03.HE. Prebentzioa (kualitatiboa)**

| Helburu estrategikoa                     | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak  |
|--|---|---|--|
| <b>HONDAKINEN HIERARKIA</b>              |   |   |  |
| <b>03.HE. Prebentzioa (kualitatiboa)</b> | Inpropioen presentzia eta bananduta biltzen diren hiri hondakinen zatiki guztietako arriskugarritasuna etengabe eta pixkanaka murriztea | Inpropioen presentziaren adierazlea biohondakin zatikian. Biohondakin zatikian dauden inpropioen batez besteko ehunekoa, pisuan | < % 5 2020an<br>< % 3 2025ean<br>< % 2 2030ean                               |
|  |   | Arrisku adierazlea. Masan bildutako hondakineta dauden hondakin arriskutsuen ehunekoa pisuan.                                   | % 80 murrizketa 2020an<br>% 90 murrizketa 2025ean<br>% 99 murrizketa 2030ean |
|  |   | Arrisku adierazlea. Hildako animalien hondakinen presentzia masan bildutako hondakineta (kop.).                                 | Batere ez 2020az geroztik  |


6. taula: Prebentziozko helburu estrategikoa (kualitatiboa)

**Deskribapena**

Ezegokien presentzia eta bananduta biltzen diren hiri-hondakinen frakzio guztietako arriskugarritasuna etengabe eta pixkanaka murriztea.

**Biohondakinak frakzioan dauden ezegokien presentziaren adierazlea**


Biohondakinak frakzioan dauden ezegokien batez besteko ehunekoa, pisuan.



5. grafikoa: Gaika bildutako biohondakineta dauden ezegokien ehunekoa, pisuan



Hala ere, lurraldeko bilketa-sistema guztietako hondakin ezegokiak kontuan hartuz, oso datu ezberdinak daude ezegokiaren batez besteko % 11rekin alderatuta. 6. grafikoaren arabera, erabiltzaile-kontrola duten bilketa-sistemek (bai itxigailua duten edukiontzien bai AAKo bilketa-sistemen bidez) ezegokiaren maila askoz baxuagoa dute, % 6aren azpitik.




**6. grafikoa:** Ezegokiaren ehunekoa FORS frakzioan  
(N: bilketa pneumatikoa; C: edukiontzia; \*lagin bakarra)



## Arrisku-adierazlea

Adierazle hau bi epigrafetan banakatzen da: alde batetik, zehazketaren bidez lortutako hondakin nahastuen frakzioko hondakin arriskutsuen ehunekoa; bestetik, frakzio bereko animalien hondakinen presentzia.


Hondakin nahastuak frakzioko hondakin arriskutsuen ehunekoa



7. grafikoa: Masan bildutako hondakinetan dauden hondakin arriskutsuen ehunekoa pisuan

**Interpretazio-oharra:** hondakin arriskutsuen ehunekoa areagotu egin da hondakin nahastuen frakzioan. Hala eta guztiz ere, 2024an sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua murriztu egin da 2023. urtearekin alderatuta, baita 2018arekin konparatzen badugu ere.

Hildako animalien hondakinen presentzia masan bildutako hondakinetan (kop.).



8. grafikoa: Animalien hondakinen presentzia Jundizko TMB-Biocompost plantan




## 04.HE. Berrerabiltzeko prestakuntza

| Helburu estrategikoa                     | Deskribapena  | Adierazleak  | Adierazleen helburu balioak   |
|--|---|--|-------------------------------|
| <b>HONDAKINEN HIERARKIA</b>              |   |  |                               |
| <b>04.HE. Berrerabiltzeko prestatzea</b> | Berrerabiltzeko prestatzen diren hiri hondakin zatikien ehunekoa eta kopurua handitzea gutxienez 2020an pisuan % 2ra eta 2030ean pisuan % 5era iritsi arte, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik. | Helburua bera.<br>Egiten den Plan honen lehenengo ebaluazio ekitaldian, baloratzeko alderdi gisa, adierazle honen banantzeak ezartzeko aukera sartuko da, berariazko zatiki berrerabilgarrien arabera. | > % 2 2020an<br>> % 5 2030ean |

7. taula: Berrerabiltzeko prestakuntzari buruzko helburu estrategikoa

### Deskribapena

Helburua 2025ean, gutxienez, ALHn sortutako hiri-hondakin % 5a (pisuan) berrerabili eta birziklatzeko prestakuntzara bideratzea da, eta 2030ean, berriz, % 10a. Helburu hau 7/2022 Legearen eraginez aldatu da. Hasiera batean, PRU2030-aren arabera, % 5eko helburua 2030erako zen.



9. grafikoa: Berrerabiltzeko prestakuntzaren ehunekoa, Araba

Legediak ezarritako helburuen arabera, Berrerabiltzeko prestakuntza eta Birziklapena adierazle bakarrean jasotzen dira, 10. grafikoa ikusiko den moduan.



**05.HE. Birziklapena**

| Helburu estrategikoa              | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak                              |
|-----------------------------------|---|---------------|--|
| <b>HONDAKINEN HIERARKIA</b>       |   |               |  |
| <b>05.HE. Birziklatzea</b>        | <b><u>Hiri hondakin guztietarako:</u></b><br>Birziklatzen diren hiri hondakinen kantitateak handitzea, halako moldez non berrerabili eta birziklatzeko prestatutakoaren ehuneko bateratua 2020an gutxienez % 50era iristen den pisuan, % 55era 2025ean eta % 60era 2030ean, Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik.   | Helburua bera | > % 50 2020an<br>> % 55 2025ean<br>> % 60 2030ean        |
| Helburu estrategikoa              | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak                              |
| <b>05.HE. Birziklatzea (jar.)</b> | <b><u>Hiri hondakinak osatzen dituzten zatiki nagusietarako:</u></b><br>a) Biohondakina Hiri hondakinen zatiki nagusia izateagatik, pisuan, 2023az geroztik (urte horretan biohondakinaren gaikako bilketa orokorra izan beharko da ALH osoan), zatiki horri aplikatuko zaizkion birziklatze helburuak hiri hondakin guztiei aplikatzen zaizkien antzekoak izango dira, hots, % 55 2025ean eta % 60 2030ean | Helburua bera | Biohondakin zatikia:<br>> % 55 2025ean<br>> % 60 2030ean |

**8. taula:** Birziklapenari buruzko helburu estrategikoa

Berrerabiltzeko prestakuntzarako eta birziklapenerako helburua 2025an gutxienez % 55a pisuan eta 2030an % 60a pisuan lortzean datza, ALHn sortutako hiri-hondakin guztietan oinarrituta.

Hiri-hondakinak osatzen dituzten frakzio nagusietarako:


- Biohondakina. Pisuan hiri-hondakinen frakzio nagusia izateagatik, 2023az geroztik, frakzio horri aplikatuko zaizkion birziklapenerako helburuak hiri-hondakin guztiei aplikatzen zaizkien antzekoak izango dira, hots, % 55a 2025ean eta % 60a 2030ean.
- Hiri-hondakinak osatzen dituzten gainerako frakzioen kasuan, aldiz, lurraldez gaindiko mailan (hau da, Europa, estatu eta autonomia mailan) ezarritako birziklatze-helburuak aplikatzen dira.



**Berrerabiltzeko prestakuntza + Birziklapenaren adierazlea (hondakin guztietarako)**

Helburua 2025ean hondakinen guztizko pisuaren % 55a berrerabiltzeko prestakuntzara eta birziklatzera bideratzea da eta 2030ean % 60a (pisuan).

2024an, adierazlea Arabako Lurralde Historikoan sortutako hondakinen pisuaren % 39an dago.




**10. grafikoa:** Berrerabiltzeko prestakuntzaren eta birziklapenaren ehunekoa




**Biohondakinen birziklapenaren adierazlea**

Biohondakinetarako helburua 2025ean sortutako biohondakinen % 55a eta 2030an sortutakoen % 60a birziklatzera bideratzea da. Biohondakinen kasuan, konpostatzea birziklapen gisa hartzen da. Bestalde, Lurraldean egiten den biohondakinen bilketaren bilakaera irudikatzen duen grafikoa sortu da.



**11. grafikoa:** Biohondakinen birziklapenaren ehunekoa, Araba




**12. grafikoa:** Biohondakinen bilketaren bilakaera, Araba




**Papera, Ontzi arinak eta Beira frakzioen birziklapen-adierazlea**

Zehaztutako helburuen arabera, Papera, Ontzi arinak eta Beira frakzioen gutxieneko birziklapena % 55ekoa da pisuan 2025. urteari dagokionez, eta 2030ean, berriz, % 60koa izan behar du pisuan.

Hiru frakzio horietarako, 2011z geroztik jasotako datuak dauzkagu; urte horretan egin zen lurraldeko lehen hondakinen zehazketa. Helburu hori Papera eta Beira frakzioen kasuan bete egin da, baina ez da gauza bera gertatu Ontzi arinak frakzioarekin.




**13. grafikoa:** Paper-birziklapenaren ehunekoa, Araba



**14. grafikoa:** Birziklatutako ontzi arinen ehunekoa, Araba





15. grafikoa: Beira-birziklapenaren ehunekoa, Araba

Adierazle horren balioak kalkulatzeko, 2011, 2017 eta 2023ko zehazketen datuak erabili dira. Horrek 2017 eta 2023an ikus daitezkeen tartek azalduko lituzke. Zehazketak bi urtean behin egiten dira, 10. ekintzan zehazten den modura. Biurteko zehazketek zehazketa-aldaketen eragina murriztuko du, datu-serie homogeneoagoak edukitzea ahalbidetuz.



**06.HE. Beste balorizazio mota bat**

| Helburu estrategikoa                     | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak |
|--|---|---------------|-----------------------------|
| <b>HONDAKINEN HIERARKIA</b>              |   |               |                             |
| <b>06.HE. Beste balorizazio mota bat</b> | Birziklatzeaz besteko balorizazio tratamenduak dauzkaten hiri hondakinen ehunekoari pisan % 15eko atalasearen azpitik eustea <sup>8</sup> , Arabako Lurralde Historikoan sortutako hiri hondakin guztietatik. | Helburua bera | < % 15                      |


9. taula: Beste balorizazio mota bati buruzko helburu estrategikoa

**Deskribapena**

Birziklapenetik ezberdinak diren beste balorizazio-tratamenduak jaso dituzten hiri-hondakinen ehunekoa % 15 atalasez azpitik (pisan) mantentzea, ALHn sortutako hiri-hondakin guztietatik.

**Balorizazio energetikora zuzendutako hondakinen adierazlea**

Ez dago 2012 baino lehenagoko ekitaldiei buruzko daturik adierazle honetarako. Hala ere, grafikoak balorizazio energetikora zuzendutako hondakinen ehunekoa azken urteetan ez dela asko aldatu eta helburu estrategikoak ezarritako gehienezkotik urrun mantentzen dela erakusten du.



16. grafikoa: Balorizazio energetikoaren ehunekoa, Araba



## 07.HE. Ezabapen segurua


| Helburu estrategikoa           | Deskribapena   | Adierazleak  | Adierazleen helburu balioak        |
|--------------------------------|--|--|------------------------------------|
| <b>07.HE. Ezabapen segurua</b> | 2020an, zabortegian utzitako udal hondakinen kantitatea ehuneko sortutako udal hondakinen guztizko kantitatearen % 35era murriztea, edo ehuneko txikiago batera, eta 2030ean ehuneko hori % 15eko atalasearen azpitik murriztea. | Helburua bera  | < % 35 2020<br>< % 15 2030         |
|                                |  | ALHn zabortegian utzitako per capita hiri hondakinak | Urteko beheranzko joera iraunkorra |

10. taula: Ezabapen seguruari buruzko helburu estrategikoa

### Deskribapena

2030erako helburua zabortegira botatako hondakinen kopurua sortutako % 15era murriztea da.


### Zabortegira zuzendutako hondakinen adierazlea



17. grafikoa: Zabortegiko ezabaketaren ehunekoa, Araba



ALHn zabortegian utzitako *per capita* hondakinen adierazlea



18. grafikoa: Zabortegiko ezabaketaren kg/bizt./urte ratioa, Araba



## 2.3. Jasangarritasuna

### 08.HE. Jasangarritasun ekonomikoa

| Helburu estrategikoa                        | Deskribapena   | Adierazleak  | Adierazleen helburu balioak   |
|---|--|--|---|
| <b>08.HE.</b><br>Jasangarritasun ekonomikoa | Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketa sistemaren jasangarritasun ekonomikoa ziurtatzea, sarrerek gastuak erabat estaltzeko mailara iritsiz. | Sarrerek gastuak estaltzeko maila (urteko dsarrerren % / urteko gastuen %) | Sarrerek gastuak estaltzeko gutxieneko maila:<br>>% 69 2020an<br>>% 88 2025ean<br>% 100 2030ean |

11. taula: Jasangarritasun ekonomikoiari buruzko helburu estrategikoa


#### Deskribapena

ALHko hiri-hondakinen kudeaketa-sistemaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzea, diru-sarrerekin gastuak erabat estaltzea lortuz.

#### Adierazlea

Hondakinen garraio eta kudeaketatik eratorritako gastuen estaldura-maila, tasen, materialen salmentaren eta SCRAPen diru-sarrerren arabera. Gastuak estaltzen dituzten diru-sarrerren ehuneko gisa neurtzen dira (urteko diru-sarrerren %a / urteko gastuak). 7/2022 Legeak % 100aren helburua 2030etik 2025era aurreratzen du.

Adierazle hau kalkulatzeko, lurraldeko hondakinak bildu eta kudeatzen dituzten erakundeek emandako datuak erabili dira, ECOVIDRIO beirazko ontzietarako ekoizlearen erantzukizun hedatuaren sistema kolektibokoak (SCRAP) izan ezik, daturik eman ez duelako.



19. grafikoa: Diru-sartzeen arabeko gastuen estalduraren ehuneko Araban



**09.HE. Ingurumen-jasangarritasuna**

| Helburu estrategikoa                     | Deskribapena  | Adierazleak   | Adierazleen helburu balioak                       |
|--|---|---|---|
| <b>09.HE. Ingurumen jasangarritasuna</b> | Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinak kudeatzeko sistemaren ingurumen eta osasunaren gaineko inpektua murriztea. | Ingurumen inpektuaren adierazlea (1). Hondakindegiek eta isurketa gune aktiboek edo leheneratzeke daudenek okupatutako azalera ALHn   | 0 ha 2030ean                                      |
|  |   | Ingurumen inpektuaren adierazlea (2). Hiri hondakin kudeaketak sortutako beroteti gasen isuriak ALHn  | Urteko desazkunde iraunkorra Planaren iraunaldian |
|  |   | Ingurumen inpektuaren adierazlea (3). Hondakinak kudeatzeko sistemak (bilketa eta tratamendua) sortutako osainengatik eta bestelako ingurumen inpektuengatik jasotako auzotarren kexa espedienteen kop. | 0 espediente ebazteke                             |


**12. taula:** Ingurumen-jasangarritasunari buruzko helburu estrategikoa

**Deskribapena**

ALHko hiri-hondakin kudeaketa-sistemaren ingurumen- eta osasun- inpektuaren murrizketa.

**Isurien ingurumen- inpektuaren adierazlea**

Obra-hondakindegiek eta aktibo edo berriztatzeke dauden isurpen-puntuak hartutako azalera ALHn. Helburua 0 ha-koa da 2030erako.




**20. grafikoa:** Araban aktibo edo berritzeke dauden obra-hondakindegiek eta isurpen-puntuak



### Karbono-aztarnaren ingurumen-inpaktuaren adierazlea

Karbono-aztarnak ALHko etxeko hondakinen garraio eta kudeaketak sortutako berotegi-efektuko gasen isurpena neurtzen du. Isurpen hori CO<sub>2</sub> tona baliokideetan neurtzen da, gas ezberdinak isuri arren atmosferan efektu bera eragingo zezaketen CO<sub>2</sub> tonekin erlazionatuta daudela kontuan izanda.



21. grafikoa: Hondakinen garraio eta kudeaketak sortutako berotegi-efektuko gasen isurpena, Araba

**Oharra:** Kalkuluaren metodologian egindako aldaketa bat dela eta, aurreko jarraipen-txostenetan 2019-2022 urteei buruz argitaratutako isurpenen kopurua eguneratu egin da. Informazio gehiago lortzeko, ikusi Arabako Foru Aldundiaren webgunean karbono-aztarnari buruz argitaratutako dokumentazioa.

### Biztanleek hautemandako ingurumen-inpaktuaren adierazlea

Auzokideek hondakinen kudeaketa-sistemak (bilketa eta tratamendua) sortutako usain txarren eta bestelako ingurumen-inpaktuen ondorioz egindako kexen txosten kopuruarekin neurtzen da.

|                                  | Urtea: 2019 | Urtea: 2020 | Urtea: 2021 | Urtea: 2022 | Urtea: 2023 | Urtea: 2024 |
|----------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| Auzokideen kexen txosten kopurua | 0           | 0           | 0           | 0           | 3           | 23          |

13. taula: Biztanleek hautemandako ingurumen-inpaktua



## 10.HE. Gizarte-jasangarritasuna

| Helburu estrategikoa                   | Deskribapena  | Adierazleak  | Adierazleen helburu balioak   |
|--|---|--|---|
| <b>10.HE. Gizarte jasangarritasuna</b> | Txirotasunaren eta bazterkeriaren kontra borrokatzen, enplegu berdea sortzen eta elikadura xahuketa murrizten laguntzea | Gizarteratze adierazlea. Gizarte bazterkeria arriskuan edo egoetan eta/edo xirotasun atalasearen azpitik dauden eta Planaren ekintza sozialen onuradun diren pertsonen kop. eta/edo gizarteratzeko enpresentzako merkatu erreserbari lotutako kontratazio publikoen emaitza, sektore publikoko kontratazioaren indarreko lege esparruak sustatzen eta jasotzen duenez. | Urteko hazkunde iraunkorra Planaren iraunaldian                               |
|  |   | Enplegu berdea sortzearen adierazlea. Plana ezartzearen ondorioz sortutako enpleguen kop.  | Urteko hazkunde iraunkorra Planaren iraunaldian                               |
|  |   | Elikagai xahuketaren murrizketaren adierazlea. Elikagai xahuketaren hondakinen murrizketaren ehunekoa pisuan 2018ko karakterizazioak zehaztutakoaren aldean.   | > % 50eko gutxieneko murrizketa elikagai xahuketan 2030ean (per caita zifrak) |

14. taula: Gizarte-jasangarritasunari buruzko helburu estrategikoa

### Deskribapena

Laguntza pobreziaren eta bazterketaren aurkako borrokan, enplegu berdeen sorreran eta elikagai-xahuketaren murrizketan.

### Gizarte-inklusioren adierazlea

Gizarte-bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskua duten eta/edo pobrezia-atariaren azpitik dauden pertsonen kopurua, Planaren gizarte-ekintzen eta/edo laneratzeko enpresentzako merkatu-erreserbaren menpeko kontratazio publikoaren onuradun direnak, indarrean dagoen sektore publikoko kontratazioaren legezko esparruak sustatu eta jasotzen duen arabera.

|                             | Urtea: 2019 | Urtea: 2020 | Urtea: 2021 | Urtea: 2022 | Urtea: 2023 | Urtea: 2024 |
|-----------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| Pertsona onuradunen kopurua | 12          | 12          | 12          | 42          | 39          | 12          |

15. taula: Kontratazio publikoen pertsona onuradunen kopurua



### Enplegu berdearen sorreraren adierazlea

Plana ezartzearen ondorioz sortutako enpleguen kopurua.

|                                | Urtea:<br>2019 | Urtea:<br>2020 | Urtea:<br>2021 | Urtea:<br>2022 | Urtea:<br>2023 | Urtea:<br>2024 |
|--------------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Enplegatutako pertsona kopurua | 2              | D.G.           | D.G.           | 59             | 58             | 6              |

16. taula: Enplegu berdearen onuradunen kopurua

### Elikagai-xahuketaren adierazlea

Elikagai-xahuketak sortutako hondakinen murrizketaren ehunekoa. 2022An metodologia aldatzea erabaki da, ELIKA-k argitaratutako datuak erabiltzeko<sup>1</sup>.

| Iturria: MITERD        | Urtea:<br>2019 | Urtea:<br>2020 | Urtea:<br>2021 | Urtea:<br>2022 | Urtea:<br>2023 | Urtea:<br>2024 |
|------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| kg/pertsona Espainian  | 29,32          | 30,93          | 28,21          |                |                |                |
| Xahuketaren gehikuntza | % 0,2          | % 5,5          | -% 8,8         |                |                |                |

| Iturria: ELIKA             | Urtea:<br>2019 | Urtea:<br>2020 | Urtea:<br>2021 | Urtea:<br>2022 | Urtea:<br>2023 | Urtea:<br>2024 |
|----------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| kg/pertsona Araban         |                |                |                | 68,12          | 111,85         | 111,72         |
| kg/pertsona, ez-jangarriak |                |                |                | 44,73          | 81,36          | 81,26          |
| kg/pertsona, jangarriak    |                |                |                | 23,39          | 30,49          | 30,45          |
| Xahuketaren gehikuntza     |                |                |                | D.G.           | % 30           | -% 0,1         |


17. taula: Elikagai-xahuketa

<sup>1</sup> Euskadiko elikagai-xahuketaren diagnostikoa, ELIKA - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.




### 3. Ekintzen garapena

PRU2030-ean hiru ekintza-programa bereizi zehazten dira, hainbat jarduketa-ildorekin. Jarduketa-ildo horiei esker, planaren ekintzak egitura daitezke, aurrez zehaztutako Helburu estrategikoak bete ahal izateko.



Programa bakoitzak PRU2030-aren garapenean egiten duen ekarpena oso ezberdina da; garrantzitsuena Gobernamenduaren eta neurri estrategikoen programa da. Programa horrek barne hartzen dituen ekintzek eragina dute hondakinen kudeaketan nahastutako agente guztietan, eta Planean zehaztutako beste ekintzak garatzeko aukera ematen duten lehentasunezko jarduketa-ildoak ezartzen dituzte.



Ekintza guztiak garrantzitsuak diren arren, programa bakoitzean Planaren helburu estrategikoak garatzeko eragin eta garrantzi ezberdineko ekintzak jasotzen dira. Hala ere, aurrerapen orokorreko balorazioa egiteko, multzo homogeneo gisa aztertu dira.

Planaren aurrerapena behar bezala baloratzeko, lurraldean burutu diren eta programa bakoitzaren lan-ildoen arabera egokitu daitezkeen ekintza guztien bilketa egin da. Ondorioz, PRU2030-ean hitzez hitz zehaztuta ez zeuden, baina, aldi berean, bere programen egikaritzean laguntzen zutelako alde batera utzi ezin ziren ekintzak hausnartu behar izan dira. Metodologia hori jarraituz gero, lurraldean sortzen diren etxeko hondakinei dagozkien aurrerapen guztiak aztertu behar dira, eta PRU2030-aren aurrerapenaren bilakaera hobeto irudikatzeko aukera ematen du.

Dokumentu honek 80 ekintzen aurrerapen-etaula hartzen du barne. Taula honek urte guztietarako zutabeak dauzka. 2018. urtea hartu da oinarritzko urte gisa hartzen da, plangintzan horrela ezarrita baitago, hura urte horren 2018ko abenduaren 15ean onartu zen arren.

Aurrerapen orokorraren maila aztertu ahal izateko, aurrerapen-maila espezifikoak ezarri da ekintza bakoitzerako.

Analisisa ekintza bakoitzean ardaztuz gero, lehen desberdintzapena jarraipen-urte bakoitzaren «planifikatua» edo «planifikatu gabe» egoerei dagokie. Ekitaldi jakin baterako planifikatuta dauden ekintzak soilik aztertuko dira. Hala ere, ekintzaren bat planifikatuta egon gabe burutzen bada, PRU2030-aren aurrerapenerako izango da kontuan.

| Egoera           | Ikurra |
|------------------|--------|
| Planifikatu gabe | PG     |
| Planifikatua     | PLANA  |

18. taula: Ekintzen plangintzaren egoera analisi-urtean

Aribideko urtean planifikatuta dauden ekintzak aurrerapen-mailaren arabera identifikatzen dira jarraipen-urtean.

| Egoera             | Ikurra | Balioa |
|--------------------|--------|--------|
| Egiteke            | Ⓟ      | % 0    |
| Aktibo             | A-     | % 25   |
| Aktibo             | A      | % 50   |
| Aktibo             | A+     | % 75   |
| Aurrerapen optimoa | ✓      | % 100  |
| Burutu gabe        | ✗      | % 0    |

19. taula: Ekintzen garapen-maila



Aukera horiek hemen definituko dira:

- Ekintza planifikatuta egon arren, garatu ez izana eta, beraz, zain egotea (Ⓟ).
- Ekintza garatzen ari den arren, erabat burutu ez izana eta, beraz, aktibotzat hartzea. Kategoría honetan, gainera, hiru aktibazio-maila daude ekintzaren (A) garapenaren arabera, 19. taulan zehazten denari jarraikiz.
- Ekintza plangintzaren arabera modu optimoan burutzen ari izatea (✓) eta, beraz, aribideko urtearen ekintzaren helburua bete izana.
- Ekintza planifikatutako unean burutu ez izana eta geroago garatu ezin izatea (✗). Adibidez: 2019an bi urteetarako egiten den zehazketa ezin izango da beste data batean burutu, 2019rako aurreikusita zegoelako.

Ekintza bat aurrerapen optimo gisa agertzeak ez du esan nahi ekintza osatuta egotea, ekintza asko urte askoz luzatzen direlako eta, beraz, erabat garatu arte, ez dira osatutzat hartuko.

PRU2030-aren jarraipen-lanean, analisia jarraitzen ari den urteko ekintza bakoitzaren aurrerapen-mailan ardaztuko da. Hortaz, denboran luzatzen diren ekintzen edo lau urtean behin burutzen den planaren ebaluaziorako ekintza-programen aurrerapenaren analisia egiteko itxaron beharko da. 2019-2022 denboraldiko lehen ebaluazioa Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuta dago.



### 3.1. Ekintzen aurrerapena

| EKINTZA | IZENA   | Urtea: 2018    | Urtea: 2019    | Urtea: 2020    | Urtea: 2021    | Urtea: 2022    | Urtea: 2023    | Urtea: 2024    |
|---------|---|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| 1       | Gobernamendu-eredu berria eta integratua  | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> |
| 2       | Arabako lurraldearteko eta lurraldez gaindiko lankidetzaz- eta koordinazio-agenda                   | NP             | A              | A              | ✓              | ✓              | ✓              | ✓              |
| 3       | Tasen aldaketa goiz jakinarazteko protokoloa  | P              | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | P              | P              | P              | P              |
| 4       | Zain dauden alderdi juridikoak eta eskumenekoak ordenatu eta erregularizatzea (ordenantzak, etab.)  | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A              | A <sup>-</sup> | A              | A <sup>+</sup> |
| 5       | Ekonomia- eta finantza-eredu bateratu eta homogenea   | NP             | P              | P              | P              | P              | P              | P              |
| 6       | Fiskalitate-eredu bateratua   | NP             | P              | P              | NP             | NP             | NP             | NP             |
| 7       | Kontratazio eta erosketa jasangarri eta berritzaile publikoa eta pribatua                           | NP             | A <sup>+</sup> | A              | A              | A <sup>+</sup> | ✓              | A              |
| 8       | Jarduera estrategikoak finantzatzeko hitzarmena   | P              | P              | P              | P              | P              | P              | P              |
| 9       | Urteko inbentarioaren prestaketa arintzea   | NP             | A <sup>-</sup> | A              | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> |
| 10      | Biuurteko zehazketak  | NP             | ✗              | NP             | ✗              | NP             | ✓              | NP             |
| 11      | Kuadrilletan zikloak ixteko aukerak   | NP             | ✓              | NP             | NP             | ✓              | ✓              | P              |
| 12      | Prestakuntza iraunkorreko programa bateratua  | NP             | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A              | A              |
| 13      | Ingurumen-inpaktuen eta -pasiboen azterketa   | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              |
| 14      | Hondakinen Ekobarometroa  | NP             | NP             | ✗              | NP             | NP             | ✓              | NP             |
| 15      | Hondakinen behatokia  | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | ✓              | ✓              | ✓              |
| 16      | Esperientzia pilotuak eta demostrazio-proiektuak  | P              | ✓              | ✓              | ✓              | ✓              | ✓              | ✓              |
| 17      | Informazio-webgunea eta kanal digital bateratuak  | NP             | P              | P              | P              | P              | P              | P              |
| 18      | Informazio, prestakuntza, kontzientiazio eta sentsibilizatorako estrategia bateratu eta koordinatua | NP             | P              | P              | P              | P              | A              | A              |
| 19      | Pizgarri-ereduak  | NP             | P              | NP             | NP             | NP             | NP             | NP             |
| 20      | <i>In situ</i> prestakuntza-programak azpiegiturretan   | NP             | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A              | A              |
| 21      | Arabako tokiko merkataritza-erantzukide egitea  | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A              | A              |
| 22      | Hezkuntza-material berritzaileak  | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A              | A              |
| 23      | Kanpainen efizientzia ebaluatu eta noranzkobikotasuna ziurtatzea                                    | P              | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> |
| 24      | Edukiontzien seinaleak eta gainerako informazio-elementuak eta interfazeak                          | P              | A <sup>+</sup> | A              | A              | A <sup>+</sup> | NP             | A              |
| 25      | Derrigorrezko protokoloak Arabako sektore publikoarentzat   | NP             | A <sup>-</sup> | NP             | NP             | NP             | P              | NP             |
| 26      | Erabakiak hartzen laguntzeko agiriak argitaratzea   | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | ✓              | ✓              |
| 27      | Planaren jarraipen eta ebaluazio parte-hartzaileak  | NP             | P              | A <sup>-</sup> | P              | ✓              | ✓              | ✓              |
| 28      | Ingurumen-inpaktua zuzentzeko jarduerak   | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A              |
| 29      | Ikuskapena, kontrola eta jagoletza sendotzea  | NP             | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> |

20. taula: 1. programaren ekintzen aurrerapena. Gobernamendu ona



| EKINTZA | IZENA   | Urtea: 2018 | Urtea: 2019    | Urtea: 2020    | Urtea: 2021    | Urtea: 2022    | Urtea: 2023    | Urtea: 2024    |
|---------|---|-------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| 36      | Gaikako bilketa-eredua erabat birdiseinatu eta berrezartzea   | NP          | A              | A              | A              | A <sup>+</sup> | ✓              | ✓              |
| 37      | Landa-gune garbien sare-eredua berrikustea  | NP          | A              | A              | A              | A              | A              | A              |
| 38      | Puntu berde mugikorreko zerbitzu-eredua berrikustea   | NP          | ✓              | ✓              | NP             | NP             | ✓              | NP             |
| 39      | Garbigune eta reutilizaguneak aplikatu daitezkeen irizpideak koordinatzea   | NP          | NP             | P              | NP             | NP             | NP             | NP             |
| 40      | Reutilizaguneak eta garbiguneak handitu, egokitu eta duin egitea  | NP          | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A <sup>+</sup> | ✓              | ✓              |
| 41      | Reutilizaguneetan eta garbiguneetako bigarren bizitzako ataletan eskainitako zerbitzuak hedabideetan iragarri eta zabaltzea | NP          | NP             | P              | A              | A <sup>+</sup> | ✓              | A <sup>-</sup> |
| 42      | TMB prozesua hobetzea   | NP          | NP             | NP             | P              | P              | NP             | A              |
| 43      | TMBn bioegonkortutakoaren soberakinen eta errefusaren ustiapen aurreraturako lerro berria                                   | NP          | NP             | P              | P              | A <sup>-</sup> | NP             | NP             |
| 44      | TMB tasaren urteko eguneratzea eta benetako kostuetara egokitzea  | P           | A              | A              | A              | A              | A <sup>+</sup> | ✓              |
| 45      | Prozesua hobetzea ontzien plantan   | P           | ✓              | P              | ✓              | A              | A <sup>-</sup> | P              |
| 46      | Isurpen-tasa urtero eguneratzea eta benetako kostuetara egokitzea   | P           | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | ✓              | A <sup>+</sup> | ✓              |
| 47      | Gardelegiko zabortegea bere IBiren baldintzak betetzeko egokitzea   | P           | ✓              | A <sup>-</sup> | A              | ✓              | NP             | ✓              |
| 48      | Garbigune berriak   | NP          | ✓              | P              | P              | A <sup>-</sup> | A              | A              |
| 49      | Hiriko/erdi-hiriko puntu garbi finkoak  | NP          | NP             | P              | P              | P              | NP             | NP             |
| 50      | Hiriko reutilizaguneak  | NP          | NP             | P              | NP             | A              | ✓              | ✓              |
| 51      | Konpostatze-plantak   | NP          | NP             | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A              | A <sup>+</sup> |
| 52      | Bolumen handikoak guztiz desmuntatzeko planta   | NP          | NP             | P              | P              | A <sup>-</sup> | A              | A              |

21. taula: 2. programaren ekintzen aurrerapena. Hondakinen hierarkia



| EKINTZA | IZENA   | Urtea: 2018    | Urtea: 2019    | Urtea: 2020    | Urtea: 2021    | Urtea: 2022    | Urtea: 2023    | Urtea: 2024    |
|---------|---|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| 53      | Autokonpostatzea eta komunitate-konpostatzea  | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | ✓              | ✓              |
| 54      | Elikagai-hondakinak prebenitzeko eta frakzio organikoa kudeatzeko tailerren programazio iraunkorra      | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> |
| 55      | Arabako elikagaiak eta barazkigintza- eta lorezaintza-hornidurak banatzeko sektorea erantzunkide egitea | NP             | P              | P              | P              | P              | A              | A <sup>-</sup> |
| 56      | Kontratuetan ingurumena sartzeko (biohondakinak, konpostaren erabilerak, elikagai-xahuketa)             | NP             | ✓              | P              | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | P              |
| 57      | Frakzio organikoaren gaikako bilketa ezartzen laguntzeko neurriak                                       | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | ✓              | ✓              | ✓              | ✓              |
| 58      | Zaintza eta ikuskapena frakzio organikoaren gaikako bereizketarako                                      | NP             | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> |
| 59      | Frakzio organikoaren gaikako bilketa-eredua erabat birdiseinatu eta berrezartzea                        | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>+</sup> | ✓              | ✓              |
| 60      | Konpostaren merkaturatzea bultzatzea  | P              | P              | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | NP             | A <sup>-</sup> |
| 61      | «Azken minutuko» elikagaien bilketa elikagaien bankura eramateko  | NP             | NP             | A <sup>-</sup> | P              | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> |
| 62      | Berrerabiltzen eta birziklatzen laguntzeko eta prebentziorako sektore- eta enpresa-planak               | P              | P              | P              | P              | P              | A              | ✓              |
| 63      | Ekoi-erabilgarritasuneko atez ateko gaikako bilketa   | A              | A              | A              | A              | A              | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> |
| 64      | Hondakin berrerabiltzarri eta bolumen handiko hondakin gaikako bilketa hobetzea                         | NP             | NP             | NP             | NP             | A <sup>-</sup> | A              | NP             |
| 65      | Garbiguneen edukiera handitzea, berrerabiltzen laguntzeko   | NP             | NP             | NP             | P              | A <sup>-</sup> | A              | NP             |
| 66      | Berrerabilpena hobetzeko neurrien pakete integratua   | NP             | NP             | P              | A              | A <sup>+</sup> | A <sup>+</sup> | A              |
| 67      | Edukiontzia zuriaren ezarpena zabaltea eta seinalezapena hobetzea                                       | NP             | P              | P              | A <sup>-</sup> | A              | A              | NP             |
| 68      | Berrerabiltzeko prestakuntzarako teknikei buruzko trebakuntza   | NP             | NP             | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> |
| 69      | Gaineko eskalan bultzatzen diren GIIS ekimenak aztertzea  | NP             | NP             | NP             | NP             | NP             | NP             | NP             |
| 70      | Edukiontzia horia behar bezala erabiltzen dela egiaztatzea eta edukiontzia horia ikuskatzea             | NP             | NP             | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | A <sup>-</sup> | NP             | NP             |
